



**Espediente zk./Nº Expediente:** 2022ZHIT0001

**Gaia/Asunto:** Errenteriako Udalaren eta Musika Bulegoaren Arteko Lankidetzaren Hitzarmena

**Eskaile/Solicitante:** EHMBE Euskal Herriko Musika Bulego Elkarte **NAN(IFK)/DNI(NIF):** G01532167

**Kokalekua/Emplazamiento:** ERRETERIA

## ERRETERIAKO UDALAREN ETA MUSIKA BULEGOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

### 1.-BILDU DIRA:

Batetik, Maite Gartzia Ontiveros, Errenteriako Udaleko Kultura sailaren Zinegotzi Ordezkaririk gisa.

Bestetik, Aitor Bengoechea Odriozola, NAN 72451985-F duena eta helbide, Enparan kalea 34, 1B. 20730 - Azpeitia

### 2.-PARTE HARTZEN DUTE:

Lehenengoak, Errenteriako Udalaren izenean, Alkatetzak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz.

Bigarrenak EHMBE Euskal Herriko Musika Bulego Elkartearen ordezkaritzan, G01532167 IFZ duena, eta helbidez, Plaza de las Cigarreras 1, Edificio Tabakalera 3 (Impact Hub Donostia) - 20012 Donostia (Gipuzkoa)

Bi aldeek elkarri nahiko gaitasuna aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako

### 3.- AZALTZEN DUTE:

I.- Indarrean dagoen legeriak lankidetzaren hitzarmenaren figura ahalbidetzen dute, gizarte-intereseko jarduerak sustatzeko.

II.- Errenteria kultur programazio bizi eta ugaria duen herria da. Programazioaren zati bat udalak zuzenean programatutako ekintzek osatzen dute baina horretaz gain asko dira herrian dauden eragile eta elkarteek antolatzen dituzten ikuskizun, jaialdi eta emanaldiak ere, diziplina desberdinetakoak, antzerkia, dantza eta musika batez ere.

III.- Azken honi dagokionez bai Euskal Herri zein kanpoan erreferente diren zenbait erakunde eta udalaren arteko elkarlana aspalditik gauzatu dago. Lankidetzaren hauen onurak asko dira bai elkarteetako partaideentzat eta baita udala eta herritarrentzat ere, hortaz, Errenteriako udaleko kultura sailaren prestutasuna argia da etor daitezkeen proiektu berri eta elkarlanak aurrera eramateko, kasu honetan bezala, Musika Bulegoarekin.



IV.- Udalak duen kulturaren oinarritutako gizarte garapen estrategian Musika Bulegoa bezalako erakundeekin elkarlan egonkorrak adostea aurrerapauso kualitatibo nabarmenak ekarri ditzake, bereziki zabaldu berri den Lekuonaren irekieraren ondorengo garai hauetan.

V.- Musika Bulegoaren eraketa eta xedea: Musika Bulegoa 2015eko azaroaren 20an Gasteizen eraturako elkarte da. Eginkizun nagusi gisa Euskal Herrian sortu eta ekoiztutako musika babestu, sustatu eta gizartearen duen presentzia handitzea da, baita Euskal Herrian jaio edo Euskal Herriarekin lotura duten musikariek eginikoa ere. Erakunde honek euskal musikaren sektoreko profesional gehienak biltzen ditu eta Euskal Herriatik kanpo nahiz bertan kalitatezko ekintzak antolatu eta garatzeko baliabideak eta zerbitzuak eskaintzen dizkie.

VI.- Musika Bulegoaren helburuak ondoko hauek dira:

- Musika sektorearen parte diren eragileen arteko harremanak sustatzea eta sektorearekin lotutako zerbitzuen topaleku bat eraikitzea

- Musika sektorea ordezkatzen duten eta honentzat interesgarriak diren ekintza eta proiektuak antolatzeko tresna izatea

- Euskal Herrian sortu eta ekoiztutako musikari kalitate irudia emango dioten euskarri eta marka bat sortzea.

VII.- Musika Bulegoaren osaketa: Musika Bulegoak, besteen artean, Euskal Herriko musika arloan erreferente nagusi diren lau elkarte batzen ditu bazkide gisa:

- Kultura Live (Euskal Herriko Areto pribatuen elkarte)
- MIE (Musika Industrien Elkarte)
- Musikari (Euskal Herriko Musikarien Elkarte)
- Musikagileak (Euskal herriko Musikagileen Elkarte)

Elkarte hauetako bakoitza modu aktiboan aritzen da musika eta musikarien lana sustatu eta gizarteratzen, eta horretaz gain, guztiak elkarte berean batzeak indartu egiten du guztien lana eta proiektu indartsu eta eraginkorrek aurrera eramatea ahalbidetzen du. Musika Bulegoarekin elkarlan hitzarmen baten onurak bere baitako elkarte hauekin guztiekin piztu ditzakeen elkarlanetara luzatzen dituela hitzarmen honek.

VIII.- Musika Bulegoaren ekimen nagusiak: aurreko lerroetan aipatu den moduan euskal musikan aritzen diren bakarkako musikari eta taldeak ordezkatzen dituzten elkarteek osatzen dute Musika Bulegoa eta ugari eta interesgarriak diren jarduera desberdinak antolatzen dituzte urtean zehar bazkide zein sektoreko eragileentzat. Hona hemen ekintza nagusietako batzuk:

- Bazkideentzat aholkularitza zerbitzua:

Simpathy for the lawyer – lege aholkularitza

Ainara Legardon – egiletza eskubideak

- Formazio programa

Musikaren arlo sortzailearekin zein industriaren alderdiekin lotutako master eskolak, entsegu irekiak eta bestelako formazio molde ezberdinak.

- Soinua Iratzarri

Berriazko formakuntza musikalik ez duten ikasleei musika lan baten sorkuntza prozesuan parte hartzeko aukera eskaintzen duen programa, ikastetxeei zuzendua.

- SAREAko programatzaileentzako topaketak

Euskal Antzoki nagusietako programatzaileekin topaketak antolatu eta zuzenean musika talde desberdinen proposamenen aurkezpena egin



Hitzarmena ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldeen konpromisoak.

#### 4.- KONPROMISOAK:

##### A) MUSIKA BULEGOA:

###### 1 - Egonaldi programan kolaboratzea

Errenteriako Lekuona Fabrikan Euskal Herriko musikari, sortzaile eta musikaren alorreko eragileei lanerako espazioa, baliabideak eta orientazioa eskainiko dien egonaldi programa bat aurrera eramateko asmoa dago. Bereziki bi alorretan lan egitea aurreikusten da:

- Zuzenekoak prestatzeko egonaldiak
- Emakumezko taldeen presentzia musika sektorean indartzeko egonaldi lerro berezitua.

Programa honen kudeaketa elkarte honekin garatuko da. Musika Bulegoak bere gain hartuko dituen funtzioen artean hurrengoak daude:

- Deialdiaren diseinua
- Programaren difusioa
- Aholkularien kontratazioa
- Egonaldien jarraipena

###### 2. - ATLANTIKALDIRAKO euskal musika agertokia edota tailerrak

Atlantikaldia jaialdian eduki ezberdinekin parte hartuko du Musika Bulegoak. Elkarte honek musika programazio alorrean ekarpenak egingo ditu, bai eta bestelako tailer eta jardueren antolaketan eduki proposamenak egin ere.

###### 3.- Soinua Iratzarri

Berriazko formakuntza musikalik ez duten ikasleei musika lan baten sorkuntza prozesuan parte hartzeko aukera eskaintzen dien programa. Eraldaketa fasean dagoen Herri Arte Eskolara sarbidea errazteko programa izan daitekeen hau Euskal Herriko eskola guztietara zuzenduta dagoen arren, Errenteriako ikastetxeekin lan ildo egonkorra bideratzeko aukera aurreikusten da.

###### 4.- Formazio programa

Euskal Herriko musikariei zuzendutako *masterclass* eta formazio saioak Lekuona Fabrikan antolatzea. Formazio programa honetan izen-emateko garaian herriko musikari eta taldeak lehentasunezko baldintzak izango dituzte.

###### 5.- Aholkularitza orokorra:

Musika arloko programazio zein lan ildoei zuzendutako aholkularitza eskainiko dio Errenteriako udalari.

###### 6.- Komunikazio irizpideak:

Edozein komunikabidek bere jardueri buruz egiten duen informazio eta publizitate orotan hitzarmen hau



aipatzea, eta bitarteko grafikoen bidez jasotzea Kultur Sailaren eta Errenteriako Udalaren ikurrarekin batera.

#### 7.- Hizkuntza irizpideak:

Errenterian garatuko duen jardunean Euskararen Erabilera Normalizatzeko eta Sustatzeko Udal Ordenantza bete beharko du.

### **B) ERRENERIAKO UDALA:**

1.- Errenteriako Udalak Musika Bulegoak Errenterian burutuko dituen ekimen eta jarduera desberdinak aurrera eramanez ahal izateko beharrezko baliabide eta azpiegitura jarriko du, esaterako:

- Lekuona Fabrikako Sorlekua eta bertako ekipamendu teknikoa musika egonaldiak aurrera eramateko
- Oholtza, karpa eta beharrezko azpiegiturak Atlantikaldian jarduerak antolatzekeo

- Musika bulegoak Errenteriako Udalaren espazioak erabiltzeko aukera izango du, hala nola, Niessen Kulturguneko aretoa, Lekuona Fabrikako espazioak eta kasuaren arabera, baita herriko udal espazio desberdinak ere (Reina Aretoa, Merkatuzar, ...).

2. - Udaleko Kultura sailaren laguntza Soinua Iratzarri eta formazio programak bideratzeko. Kultura sailak bitartekari lanak egingo ditu Udaleko sail desberdinen (hezkuntza, kultur aniztasuna, berdintasuna, ...) eta herriko erakunde desberdinen arteko lankidetzaz erraztu eta bide berriak irekitzeko.

### **5.- DOAKOTASUNA:**

Musika Bulegoaren eta Errenteriako Udalaren arteko lankidetzaz doakoa izango da, aipatutako baliabide eta zereginen inguruko konpromisoez harago, diru trukerik gabekoa.

### **6.- JARRAIPIEN BATZORDEA:**

Lankidetzaz hitzarmenaren jarraipena errazteko, batzorde misto bat eratuko da. Sinatzaile bakoitzak ordezkari bat izango du bertan. Besteak beste, batzorde horren zereginak izango dira: hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, betearaztean sor daitezkeen desadostasunak konpontzea, hitzarmenaren gauzapen-maila aztertzea eta beraz hobetzeko proposamenak egitea.

Batzorde hau urtean gutxienez lau aldiz bilduko da, hitzarmen honen xede diren jarduerak eta egitasmoen antolaketa zuzena bermatu eta jarraipena egiteko.

Batzorde hori edozein batzordekideren eskaerari erantzunez, ondorengo 7 egunetan bilduko da.

### **7.- HITZARMENAREN INDARRALDIA:**

- Hitzarmen honek bi (2) urteko iraupena izango du, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da, sinatzen denetik aurrera.

- Hitzarmenaren aldaketak bi aldeek adostasunarekin burutuko dira, jarraipen batzordeak hala



proposatuta.

- Hitzarmen honi buruzko edozein aldaketa, luzapen edo interpretazio, aldeek sinatutako eranskinen bitartez egingo da eta hitzarmenari atxikiko zaizkio.

Hitzarmena iraungi ahal izango da:

- a) Indarraidia igaro eta hitzarmenaren luzapena oraindik erabaki gabe egoteagatik.
- b) Aldeek aho batez hala adosteagatik.
- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioz.

-Jarraipen Batzordeak eskumena izango du hitzarmenean jasotako betebeharren eta konpromisoen inguruan bi aldeetako edozeinek salatzen dituen ez-betetzeen berri izateko eta horiek baloratzeko.

#### **8.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA:**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluko VI. Kapituluan xedatutakoarekin bat, eta, interpretatzeko eta garatzeko, bere estipulazioak eta, osagarri gisa, lankidetzaz-hitzarmenei aplikatu dakiekeen ordenamendu juridiko administratiboa bete beharko ditu.

Haren interpretazioan eta garapenean sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak eta eskumenekoak izango dira.

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek HITZARMEN hau sinatzen dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, idazpuruan adierazten den datan.

Maite Gartzia Ontiveiros	Aitor Bengoechea Odriozola
Errenteriako Kultura Zinegotzi Delegatua	Musika Bulegoko Presidentea



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Musika Bulego Lankidetzaren Hitzarmena